



NOR DA MINTZO?

TXILLARDEGI

Probokazio hutsen garai tristeetan geure herria batera maila guztietako eredu, abangoardia, saialeku eta parabisu behar bide genuen lokamutsaldia, gainditzen hasia da, itxuraz. Dena batera lortu behar zen; ala bat ere ez.

Gaur, burubide handiagoaz, gure herria *herri* irauteko, garatzeko eta azkartzeko behar ditugun *gutxieneko* baldintzen arazoa plazaratu da.

Bost hiriburuetan batera Autodeterminazioari buruzko hitzaldi sailean datorren astean zabalduko den ekinaldian ere, bide beretik etorriko da bultzada. Eta hori gutzia beharrezkoa da erabat.

Hots, gaurtxe irakurri ahal izan dugun artikulu mamitsuan («*Secularización y pluralismo en Euskal Herria*», «Deia», martxoaren 13an), Baskongadetako Unibertsitate Errektorea den Gregorio Monreak puntu berbera ikutu du.

Gure herriaren euskaltasuna oraindik irents ezin dezaketen inperialistak gogoan dauzkalarik (honen garbiro salatu

ez arren), egia handiak gogorazi dizkie; eta Monreak daukan postu goren horretatik arazoak gordinki esateak merezimendu handiak ditu. Honetaz ez dago dudarik; eta hementxo doakio gure txalo bihozkorra.

Belaskerien aurka, adibidez, hau irakur dezakegu: «La normalización cultural del País Vasco va a ser un proceso *complejo e incómodo* (azpimarraketa gurea da), que cuesta asimilar más a quienes consideraban que la situación anterior formaba parte del orden de la naturaleza».

Hizkuntza normalizazioari datzekion premiazko urrats batzu aipatu ditu Monreak, argi eta garbi, «normalizazioa» bera barne («la opción de normalización lingüística adoptada»):

- «La inevitable unificación del idioma»;
- «La necesaria asignación de recursos para crear y mantener instrumentos de normalización lingüística»;
- «La existencia de plazas bilingües para las Administraciones públicas».

Baita gure kontra beti, ahoz, «pluralismo» hitza erabili ohi dutenen kontra, adibide polit hau erantsiz: «Tendremos autoridad moral para invocar el pluralismo cuando conozcamos, sí, la obra de Pablo Antoñana, Guerra Garrido o Gabriel Celaya; también cuando *leamos directamente* a Andu Lertxundi, Bernardo Atxaga o Joseba Sarrionandia». Zito galanta eta egokia erderomanoen kontra, noski. Eta horreraino ados gara. Zalantzarik ez.

Baina hortik aurrera (nahiz atzera izan artikuluan) Monreal intelektualari, Monreal politikaria gailendu ez ote zaion beldurra gaude: «Es posible una sola comunidad en la que convivan prácticamente dos culturas».

Eta hori irakurrita, galdera ziplo dator: *Non? Nola?* Eta erantzunaren zai gauzka Errektoreak.

Gure ustez, politikaria taktikaz arduratzen den bezalaxe, estrategiaz arduratu behar du intelektualak. Eta bi ikusmolde desberdin hauen artean sortu ohi diren ikamikak eta dialektika, onak dira.

Guri dagokigu, beraz, galdera berriz errepikatzea, gizatalde berean bi kultura orekaturik, NON eta NOLA.

Monrealek badaki egia, itxura denez. Baina bi puntutan aurkezten duen egoera, kontraesan oratua da:

Batetik hau dio Monrealek: «(hay que hacer que) la lengua (vasca) llegue a tener plena vigencia en algunas áreas geográficas, institucionales y sociales! — . *Garbikiago esanda: lurraldetasunaren arauera* antolatu behar da Euskal Herria, Monrealen ustez; eskualde eta instituzio batzutako alor guztietan euskarā beharrezko mintzaira bihurtuz. Egia esan, horixe da gutxieneko baldintza, eta ez besterik; elebitasun «orokorra eta orekatua» (= bilingüización general) benetan gauzatu den herririk bat ere ez bait dut ezagutzen.

Hots, ongi dakigunez, beren praxian batez ere, baina are teorian ere batzutan, lurraldetasunaren helburu horren kontra daude gaur euskal eta erdal politika talde guztiak; eta agintean dagoen alderdia bereziki oso. Honetan, beraz, Monreal oso profetikoa da; eta ez batere politikoa, denak ditu kontra, guk bezala.

Halaz ere, uhin aldaketa dator kolpez. Hauxe proposatzen baitzaigu: «(hay que lograr) un grado suficiente de la misma en los ámbitos castellano-parlantes del país». Eta taktikari huts gisa mintzo: «para que los vasco-parlantes puedan llegar a vivir en su tierra con las mismas comodidades con que hasta ahora han vivido, y sin duda alguna vivirán en el futuro los ciudadanos de habla castellana».

Hitz batez, hemen, eta zoritxarrez, elebitasun orokor eta orekatuaren *gezurra* zabaltzen digu goi-goitik Monrealek. Hain zuzen, frantses filosofo hark hain gaixtoki maiseatzen zuen liberalismoaren ipuina gogorazten digu: «la ley liberal es ecuaníme; y lo mismo tolera al potentado que al proletario que duerman, al aire libre y bajo los puntes del Sena, cuando les venga en gana al uno y al otro»...

Batzutan aipatu ohi diren etsenpluak oro (Suiza, Suomi, Belgika, Jugoslavia; Canada bera, Quebec-i dagokionez) *lurraldetasunaren arauera* antolatuturiko Estatuak dira. Hots, erdaldun hutsak hemen orain bezala biziko badira gero ere, lurraldetasunik aplikatzeko asmorik ere ez dagoela agertzen da; edo gure herria zatikatzeko asmoa dagoela.

Eta honelakorik ezer egiteko asmorik ez badago, Monreal taktikoa, intelektual egitiari nagusitu zaio; eta honek trinkoago egin dezake jadanik oso beltza den ilunpea.

Monrealen fintasuna dudan jartzen ez dugunez gero, arazo honetan politika gizona mintzatu dela dirudi: «ez ditzagun erdaldunak ikara». Baina orduan, eta joko horietan abiatuz gero, «on y perd la pédale»; eta unibertsitarien artean egia izkutatzea eta mitoak zabatzea, arriskugarri gerta daiteke.

«La política es el arte de engañar al pueblo». esan dute batzuk. Elebitasun orokorra helburua izan daitekeela oraindik ere (Belgikako eta Canadako lege-aldaketren ondoren batez ere) hedatzeam guztiz arriskugarri gerta daiteke.

Monreal arazo larri hauetaz mintzo denean, nork nagusitu behar luke: politika gizonak, ala intelektual zuzenak? Erantzuna, jakina, Errektoreari datzekio; eta ez guri.

